



Haur, Nerabe eta Gazteen ekimenak eta parte-hartzea sustatzeko zerbitzua

# Zer da PSZ ?

**PSZ, Herri txikietan haur, nerabe eta gazteen ekimenak eta parte-hartzea sustatzeko zerbitzua da.**

Tokian tokiko haur, nerabe eta gazteei, eskaintza iraunkor baten bidez haien haurtzaro eta gaztetasunaz gozatzeko aukera egonkorra eta etengabea bermatzeko zerbitzua da; eta hori guztia etapa horiek dituzten bi zentzuetan:

- a.- berezko balioa duen bizitza-etapa gisa.
- b.- gaitasun pertsonalak eta gizarte-loturak landuz. Emantzipazio-prozesu gisa.

Herritartasun aktiboa, sistemaren xedea izateaz gain, haur, nerabe eta gazteen oinarrizko eskubidea da.

Baliabide urriagoak dituzten udalerrri txikietarako zerbitzu oso baliagarria izan nahi du. PBZ hiru adin-tarteei eskaintzen zaien zerbitzua da. 5 eta 30 urte arteko herritarrentzako zerbitzu bateratua, baina bizi-aldi bakoitzari arreta berezia eskainiko diona.

**Norbanako mailan (autonomia sustatuz)  
Taldea mailan (jarrera kritikoa sustatuz)  
Komunitate mailan (aldaketa-prozesuan inplikatzeko gaitasuna sustatuz)**

# Nola PSZ ?

## KOMUNITATE-EREMU GARATUA

- 1.- Herriko sareak ezagutu eta elkarlana bideratu
- 2.- Herriko gainerako talde era eragileekin komunikazio-bideak sortu eta egonkortu
- 3.- Herriko eragileekin elkarlana ahalbidetu
- 4.- Herriko baliabideak eta ezagutzak partekatzeko bideak, harremanak eta espazioak sortu

## SARE-LANA

- 1.- Beste udalerrietako zerbitzuekin ekintza bateratuak antolatu
- 2.- Haur, nerabe eta gazteen gaien prestakuntzan parte hartu
- 3.- Haur nerabe eta gazteentzako informazioa zerbitzura helarazi
- 4.- Lurralde mailako inplementazio-plana udalera egokitu
- 5.- Bulego teknikoarekin bildu
- 6.- Teknikarien sarean parte hartu

# Nork PSZ ?

**Tokian tokiko eragileek, tokian tokiko suspertzaileek lideratuta.**

PSZ herri txikietako suspertzaileek lideratu nahi dute. Tokian tokiko elkarte, eragile, haur, nerabe gazte eta haien inguruko bizilagun eta eragile guztien artean.

# Nola PSZ ?

**Aniztasunean lan eginez, modu planifikatuan baina malgutasunez. Zerbitzua definituz, erantzukidetasunez. Sare-lanean eta gertutasunez. Konfiantza sortuz, ikusgai eginez, eta gatazken kudeaketan nahiz afektibitatean oinarrituta.**

# Non PSZ ?

**Zure udalerrian.  
Aia, Alegi, Amezketa, Ataun, Ibarra,  
Idiazabal, Irura, Itsasondo, Segura, Zegama,  
Zestoa eta Zizurkil**

Herri txikiek, euren baliabideak zerbitzu bakar eta sendo batean jartzeko aukera izan dezaten.

## ARRETA ZUZENA

Haur, nerabe eta gazteekin esku hartu, ingurura egokitze beharrezkoak dituzten ezagutza, trebetasun eta gaitasunen jabe egin daitezten, baita ingurunea haien beharretara egokituz ere.

- 1.- Eskaintza ludiko eta jostagarria proposatzea
- 2.- Sei jarduera-eremuak garatzea: informazioa, orientazioa, bide-laguntza, aisialdia hezitzailea, parte-hartzea eta sorkuntzarako bideak
- 3.- Zerbitzuko hartzaileekin partaidetzazko programazioak eta ebaluazioak egitea
- 4.- Opor garaietako eskaintza garatu eta udalekuetako koordinazio-lanak burutzea
- 5.- Esku hartze komunitarioa: kale-lana

# Nola PSZ ?

## BARNE-LANA

### PLANIFIKATUTAKO ESPAZIOA

- 1.- Haur, nerabe eta gazteen behar, interes eta joerak identifikatu eta horren arabera planifikatu
- 2.- Haur, nerabe eta gazteekin programazio eta ebaluazioa parte-hartzaileak nola egingo diren planifikatu
- 3.- Zerbitzuaren helburuen arabera egindako plangintza garatzeko estrategiak zehaztu eta aurrera eraman.
- 4.- Giza baliabideen eta baliabide ekonomikoen plangintza eta kontrola.
- 5.- Opor-garaietako eta udalekuetako eskaintza planifikatu, jarraitu eta ebaluatu.
- 6.- Zerbitzuaren inguruko txostenak sortu, eta emaitzak ezagutarazi udal ordezkari eta eragile ezberdinei.

### KOORDINAZIO SISTEMA

- 1.- Zinegotziekin koordinazioa sistematizatu
- 2.- Koordinaziorako egiturak sortu eta daudenetan parte hartu
- 3.- Batzordearen deialdiak
- 4.- Guraso eta haur txokoekin eskaerak

# Zergatik PSZ ?

**Haur, nerabe eta gazteei beren kasa antolatzeak, norbanako nahiz taldeen proiektuak burutzeak esperientzia atsegingarriak eta aberasgarriak ekarriko dizkietelako eta beren emantzipazio-prozesurako entseguak eta aurrerapausoak izango direlako.**

Gaztematikaren katalogoan aurkitzen da...  
**HAUR NERABE, ETA GAZTEEN EKIMENAK ETA PARTE-HARTZEA SUSTATZEKO ZERBITZUA**

Beren kasa antolatzen laguntzeko eta Sistemaren xedearen esparruan zentzua duten proiektuak, norbanakoenak nahiz taldeenak, abian jartzen laguntzeko. Beren kasa antolatzeak eta proiektu horiek burutzeak esperientzia atsegingarriak eta aberasgarriak ekarriko dizkiete eta, horrekin batera, beren emantzipazio-prozesurako entseguak eta aurrerapausoak izango dira. Haurren eta gazteen ekimenei laguntzeko zerbitzua bidea errazteko elementu bat da, ekimenak sortzen laguntzen duen eta euskarria eskaintzen duen laguntza-baliabide erabilgarri eta proaktiboa; gainera, ekimena sortzen ari denean eta ekimen hori garatu eta kudeatzeko prozesu osoan zehar jo daiteke zerbitzu honetara. (GAZTEMATIKA)

Gaztematikak ondoko helburuak ditu:

- a.- haur, nerabe eta gazteei arreta
- b.- eskaintza iraunkor eta koherentea
- d.- aisiaren esparruan eragitea
- e.- erakundeen lidergoa haur eta gazteen eremuan
- f.- partaidetzaren aldeko apustua
- g.- toki mailan zerbitzuak eskaintzea